

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2024ko otsailaren 29an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

CHILLIDA LEKU MUSEOA ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA.

Hernaniko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko uztailaren 22an, **HAUSER & WIRTH SAN SEBASTIAN SL Chillida Leku Museoarekin** hitzarmena onartu zuen.

Hitzarmenaren indarraldia lau urtekoa izango da (2021-2024), urtez urte hitzarmena aztertu ondoren.

Hernaniko Udalak urtero 15.000 €-ko dirulaguntza emango dio HAUSER & WIRTH SAN SEBASTIAN SL Chillida Leku Museoari, 2024ko aurrekontuan Dirulaguntza izendunen atalean jasotakoa: Partida: 02.481.02.334.00. Kopuru hori bi epetan ordainduko da %60 urte hasieran eta %40 memoria aurkeztutakoan.

2023ko dirulaguntzaren jardueraren memoria, garaiz eta dagokion epean aurkeztu du. Hitzarmenean jasotako Solstiziorako sarrerak helerazi dizkio Udalari eta udako zenbait jardueratan hernaniarrei prezio berezian eskaeini die.

Kontuan hartu da Herritarrentzako zerbitzuen batzordeak 2024ko otsailaren 29ko bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena

Horiek horrela, hau erabaki da: **AHO BATEZ**

1. 2023ko dirulaguntza izendunaren zuriketa **onartZEA**
2. 2023ko dirulaguntza izendunaren %40 ordaintzea **6.000 €** 02.481.03.334.00/2023 partidatik.
3. 2024ko dirulaguntza izendunaren %60 ordaintzea **9.000 €** 02.481.03.334.00/2024 partidatik.

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritz

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertzeke errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekursoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2024ko otsailaren 29an

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa
Hernaniko udal-Idazkaria

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU1222f0f0-8722-40e2-aef0-f4828a097bbd**

Egiastatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>